

## **Nerea Urbizuk sorturiko «HitzEkin» abestiak girotuko du 22. KORRIKA**

**AEK-KORRIKAK aurkeztu berri du 22. edizioa girotuko duen kanta. Sustrai Colinak sorturiko hitzei Nerea Urbizuk jarri die musika, eta Ane García, Anari eta Nerea Urbizu bera dira abestiaren interpreteak. Pop doinuaz jantziriko kantak bideoklipa ere badu: bertan, jendartearen egungo errealitate desberdinak "korrika egiten" azaltzen dira; eta amaieran, jendea batuta, euskararen aldeko KORRIKA hitz ekiteko prest.**

AEK-k eta KORRIKAK aurkeztu berri dute 22. KORRIKAren abestia gaur, abenduak 16, Iruñeko Golem Baiona zinema aretoan. «HitzEkin» du izenburu, eta Nerea Urbizu da abestiaren zuzendari artistikoa. Ane García, Anari eta Nerea Urbizu bera dira interpreteak, eta hitzak Sustrai Colinak idatzi ditu. Halaber, Eymard Uberetagoena (Tripulante Produce) aritu da bideokliparen ekoizle lanetan. Aurkezpenean, Asier Amondo KORRIKA arduradunak eta abestiaren eta bideokliparen egileek hartu dute parte.

Urbizuren esanetan, «abestia emozionala da, soziala. Pop kutsua dauka gehienbat, eta hiru adin desberdineko emakumek abestua da, gure helduen eta txikien arteko katearen sostengu eta bitartekaritza irudikatzeko». Mezuari dagokionez, Urbizuk esan du «irekia» izan arren, «balore garrantzitsuak» bultzatzen dituela: «ausarta izatea, ahalduntzea, oztopoen gainetik aurrera egitea edota beldurrak gainditzea.».

### **Bideoklipetan, KORRIKA egiteko hainbat modu**

Aurkezpenean, Eymard Uberetagoenak ekoiztutako bideoklipa ikusteko aukera ere izan dute gerturatutakoek. Horren harira, Urbizuk azaldu du «hainbat istorio biltzen dituen film laburra» dela, eta «jendeak korrika egiteko motibazio ezberdinak dituen moduan, gure KORRIKArekin ere halako zerbait gertatzen da: sentsibiltate desberdineko jendea biltzen diruen arren, denoi eragiten digu indar bat, poz bat, babes bat.».

Amondok, bere aldetik, azpimarratu nahi izan du «HitzEkin» leloaren esanahia, abestiaren izenburua ere badena: «Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina



ekimenez eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea» dio KORRIKA arduradunak. Eta harago joan da, «unea orain dela» esanez, «euskara hitzetik ekintzara pasatzeko unea. Aldekotasunetik konpromisora jo behar da eta konpromisotik eragitera, erakunde orok urrats sendoagoak emateko jendartearen nahiei eta beharrei erantzuteko.».

Abestia zein bideoklipa daude eskuragarri KORRIKAREN webgunean, baita AEK-KORRIKAREN sare sozialetan ere.

korrika.eus



**ARABA**

Arana kalea 30, behea  
01002 GASTEIZ  
946 464 000  
araba@korrika.eus

**BIZKAIA**

Txakur kalea 1, 4.a  
48005 BILBO  
946 464 000  
bizkaia@korrika.eus

**GIPUZKOA**

Iztueta kalea 3, behea  
20001 DONOSTIA  
946 464 000  
gipuzkoa@korrika.eus

**IPARRALDEA**

Marengo karrika 22  
64100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
iparraldea@korrika.eus

**NAFARROA**

Errekoleten kalea 16, behea  
31001 IRUÑEA  
946 464 000  
nafarroa@korrika.eus